

3. Aldaketa sintaktikoa (Campbell-en arabera) zenbait euskal adibide:

Aldaketa sintaktikoari dagokionez, gaur egun, oraindik ez dago ikertzaile guztiek onartzeko moduko hurbilketarik. Hemen ezin da berreraiketa fonetikorik egin, sintaxiak gramatika-ereduek bakarrik baitu zerikusia eta hau ezin da deskribatu fonologiaren bitartez. Sintaxi aldaketa gehiago da ereduak ordezkatzeko, nahiz eta berreraiketa ere egiten den (kasu honetan emaitza eztabaidagarriak irteten dira). Aurrerapenik handienak hizkuntza tipologian oinarrituz lortu dira.

Aldaketa sintaktikorako hiru mekanismo nagusi bereizten ditu Campbell-ek (hauez gain, gramatikalizazioa ere aipatu behar da):

1. Berranalisia: sintaxi ikuspegitik definitu zuen, egitura sintaktikoaren azpiegitura aldatzen du, baina ez du azaleko egitura aldatzen. Hau da, morfologi markak eta hitz-ordena aldatu gabe, berranalisia egiteko ezinbestekoa delako egitura bat era batera baino gehiagotara analizatzeko aukera egotea. Adb: Ni nekatzen naiz (sub./ A. nagusi.osagarri./A nagus) > ni nekatzen naiz (sub/ A. nagus./ A. lagun) berranalisiaren ondorioz, iherarkia eta kategoria aldaketa eman da.

2. Hedadura: azaleko perpausean gertatzen den aldaketa da, baina ez du bere baitan hartzen azpiegituraren berehalako aldaketa. Askotan, lehen urratsa berranalisia da, eta gero berranalisi haren hedadura gertatzen da analisi berriak sortzen dituen lehen ezinezkoak zirenak. Adb. Paris/en > Paris/e leku-kasuetan -e beti erabiltzen da (atze, aurre,...) eta izenekin berranalisia egin ondoren -e- ren funtzioa hedaduraren bitartez aldatu da.

3. Mailegu sintaktikoa: hizkuntza batean beste hizkuntza batetik datozen egiturak erabiltzean datza. Garrantzitsua da onartzea mailegatze sintaktikoaren beraren papera aldaketa sintaktikoan. Adb. Gaztelerazko *segun* eta *contra* euskarak mailegu hartu eta gainontzeko postposizioak bezala erabiltzen ditu, baina jatorrizko hizkuntzan ez du funtzio hori. Egokitzapen bat izaten du beti maileguak.

4. Gramatikalizazioa: Mailletek sortutako kontzeptua da, hitza gramatika- marka bihurtzen deneko prozesuari izena emateko kurylowicz-en definizio ezaguna: "Gramatikalizazioa honetan datza, morfema baten hedadura handitzean, estatus lexiko batetik gramatikal batera edo gramatikal batetik gramatikalago batera igarota". Prozesu

tipikoa hau da: hitz lexikoa > gram. hitza > klitikoak > erantsitako hitza > portmanteau hizkia (gainerakoekin nahasitakoa). Prozesu honetan, sarritan hitzaren esanahia edo forma fonetikoak ahuldu egiten dira. Adb. “egin” aditza, mendebaldean aditz laguntzailea dena. Bestalde, gramatikalizazio fenomenoak nahiko arrunta da, desgramatikalizazioa ez da hain arrunta.